URRILLA
4
Egubena
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 Irko. Iru llo.
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXI urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.808 zenbakija

Egunekua

Euzko-endoriak

Aspalditxubon, euzko-endorien auzijak, arapaladatxuba darue. Auzi bakan onetako auziren bat, egunero ikusi oi-da, ba.

Bat ikusi ixan daunarentzat, bariz, enparauko gustijak be, ikusita dagozala esan leike, epaipian imiñi dabezan endore gustijentzat zigor bardiña darabile-ta.

Zigor oneri, zortzi urtian erijan agintzeko gaitasuna kentziari deritxo, ta irureun laurleko ordainduten biartutiari.

Zortzi urtiok, irakurle, espetxian sartuta egotekuak eztira, zortzi urte orretan endore-ta olako aginpidietan nastau barik egon biar ixateko baño.

Zortzi urtiok baño min geyago emoten daben zigor, irureun laurleko zigor-ezartzale orei emon biar ixatia da.

Aldi onetako epaikarijak eta abar, orretantxe bakarik dabiltzala esan be egin leike, edozer iñozentekerigatik txindi-zigor ezarten baño eztakije-ta.

Auzi bakan onetako aldezliak, bariz, alper-alperiko aldezliak dira, euren izpide ta itzaldi der gustijak, epaikarijen oin-azpijetan ondatzen dira-ta.

Auzi onetan gixonen izpidiak eztauko aldiñik. Aldezlien izpidia ezta ezetarako be gauza. Epaikari zuzenon (?) erantzuna, umetan buruz ikasita daukagun "Agur Miren eskarez betia" lez, abua zabaltzen dabeneko berez urtetan dautsien epai bakana da, ba: "zortzi urte ta irureun laurleko".

Era onetako epaikarijakin, ¿zer egiteko? Itxaron, eguraldijak ondu arte, itxaron.

Eguraldijak ondu dalezanian, ba, ta artuak ereteko lur-aro berezira eldu, orain epatubak diranak, epaikarijak ixango dira. Oraingo jaurlaritjak, jaurlari-menpekuak.

Gaur ganetik dabilana, bijar azpitik ibiliko da.

Gaur axia ereten dabilana, bijar ekaitza batuten...

卐 卐 卐

Gure euzko-baserritxu txikijetan, auzi oneik dirala-ta, notiñak artega aurkitzen dira.

Bai, ba. Zuzutsaren ixenian, eta bai uskurtzearen ixenian be, artegatasuna baserritar bakunakañe eruaten dabiltzan maltzur askotxu bixi dira, ba.

Jauntxubei oin-azpijak garbitzen ibilteko baño bestetarako gauza eztiran gixaki ezeskarijok, andik Madrid'tik eta areik emen daukiezan otsein leyalakandik yatorkuzan agintza gustijei buruba makurtuten ezpa-yake, legetik kanpora ibiltia dala zinistuazoten dautsie, ba. Madritarai, ta areik bidaltzen dausbezan jaurlarijak diñoskubena, geure kortaetako bei, txal eta olo gañoko gustijak Madrid'ko jaurkunari emoteko ba-da be, kortaetako bei, txal eta olo gañoko gustijak, Madrid'ko jaurkunari emon biar dautsaguzala diñue.

Eta oso-osuan emon be, ezezko muxinka txikijenik be egin barik; apal eta burubak be-bera jatsita.

Madritarai ezezkua emotia, oben aundija ei-da: lagitik ateriko obena. Madritarak agintzen dauskubenari buruba makurtuten ezpa-dautsegue, emengo jauntxuben otsein leyalon eretxiz, zeruan sartzerik be eztago, donokiko giltzen jaub, be, eurak egin dira-ta.

Auzi au bide dala baserijetan zabaldu ixan daben azitia be, beñola areik parixetar ezeskarijak zabaldu eben azi txarra, irakurle, auxe ixan da: "Auzi onetako Euzko-Udalak, Madrd'ko Jaurkuna'ren agintzetatik urtenda ibili dirala, lagitik urtenda ibili dirala. Eta irabazi daben zigorra, ondo irabazita daukela...".

卐 卐 卐

Euzko-Udalak, bariz, ainbeste esamesa imiñi daben auzi onetan, euren egin biarra bete baño besterik eztabe egin. Euren eskubidiak aldeztu bakarik.

Edozein banakarik egingo leukena: euren arduraplan erijak imiñi ixan ebezan eri-eskubidiak eta abar aldeztu.

Madrid'ko jaurkunak, gaztelar batzuk alantxe gura ebela-ta, Gaztela'tik Euzkadi'ra ezarri diran ardauen zergakañoko gustijak Euzko-Udalai kentzeko asmua agertu eban.

Eta asmo ori, Euzko-Udalen kaltezkua zalako, Udal oneik txartzat etsi eben.

Txartzat etsi, ta asmo txar ori aurera juan ezegijantzat, bere aurka jagi.

Orixe ixan da Euzko-Udalak egin ixan daben obena: etxeko ogasunak eruaten etxe-barauratu gura ixan daun atzerritarari, atiak ertsiten jagi.

Auzi onetako Euzko-Udalak egin ixan dabena, kistar-ikasbidiak eta gixarte-lagijak be, ontzat eta bidezkotzat artzen daben egiñen zuzena ixan da. "Saspigaren aginduba, iñoren ogasunakaz ez jaubetutia" da. Iñorenak geldi laga, ta norberenak ondo zaindutia.

Eta auzi onetako Euzko-Udalak egin dabena be, orixe ixan da: iñorenari geldi laga, ta eurena zaindu, eurena aldeztu.

Eta kistar ikasbidiak ontzat emoten daben egiñen oni, Madrid'ko jauntxubei oin-azpijak garbitubaz guzur-oxiñan garbitutzeko bat eginda bixi diran emengo parixetarak, Euzko-Udalen egiñen zuzenok gaiztetsi egin dabez, eta euzko-endoriak eta ziñegotzijak epaipian imiñi.

Maltzurkeri onetan surik geyen biztu daben su-arija Urkixo'tar Joseba Miren 'aren "La Gaceta" ixan da.

Izparingi bakan onek, bere inguru-bira gustijetan, matxiñadea ta gaiztokiko demoniñuak baño besterik eztauz ikusten ixan.

Amesetan be, matxiñadeagaz egiten ixan dau. Matxiñadeari dei ta dei egiten ixan dautsa, ta dei ta dei egiten diñardu. Matxiñadarik baña iñundik be etxako etorten, ezta izki gori aundijekaz defuta be.

Eta bere deyak alperiko deyak dirala ikusi daunian, atzoko zenbakijan izki gori oneik idazten dauz: "La maniobra político-revolucionaria parece haber fracasado estruendosamente".

Baña, guk Urkixo ta aren matxiñada -ipuñaren bari dakigunok, beste au esan geinke: "El fracasado". Urkixo bakarik dala.

Olako gixontxubak aldeztuteko dagon "erlejiñua" ta aberija, esku onetan dagoz. Beraz ez artegatu, zubek, baserritar maiiok, zuben erikoi endoriak zuzen ibili dira-ta.

URIBITARTE'TAR IBON.

Itz onak ez egintzak bear ditugu

卐 卐

Los santos procuran ser
y no pasar por santos.

Nik uste det—parkatu—orainarte biotz-biotzean genukan kistartasun edo "katolizismoa" min-gañera igo digula bear bada, andik urengoko egiñalakoan kanpora irten eta guk bate gabe uzteko.

Ezin beste gauzarik esan liteke ikusten diran gauza asko eta asko ikusita.

Dan-danak onak, gustiz onak agertu nai degu, baño... egintza onak bestendako utzita.

Nik uste det, bariz, bai gizon eta bai eriak gogait egin eta aspertu-ta daudela ainbeste itz laban eta ariñekin.

Eriak nai duana da: itz gitxi eta eurak onak.

Auxe ondoen egiten duanena izango da garaitza.

¡Bai orixe!

ONALDE.

Tchecoslovaquie'ko emakumeak

III

EMAKUME BAT DIJOA..."

Fermin de Altobiskar.
"El Día,"n.

Lan abetan asi beriak diran aren, emakumeak lege on asko egin dituzte euren aldez eta eriaren zatirik txiro eta argalenaren aldez batez ere. Amak eta umeak euren laguntzapean artzen dituzten legeak, emakumeai zor zaizkioe.

Ikaste, ikastola ta irakasliatzaz ere lege onak egin dituzte, gastediari edari patartsuak saltzea galerazo, emakume galduen etxeak kendu, eta abar.

Lateritik kanporako politikan ere lan aundia egin dute. Plaminskora izendun emakume bat izan zan Tchecoslovaque'ko alduna Ginebra'ko Laterien Bazkunean.

Udaletan emakumeak lan asko eta ona egin dute, batez ere, osasun arazoetan, maizterenetan eta ikastolenetan.

Ikastola Bazkunak lan asko eta ona egin dute, batez ere, osasun arazoetan, maizterenetan, eta ikastolenetan.

Ikastola Bazkunak, Boheme'n bakarik, amasei lendakari eta berogeitabat ordezkari emakume dituzte.

Emakumeai autarki eskubidea ematean, askok uste izan zuten lateriko politika guztia azpikoez gora eta goikoaz bera jariko zutela, eta politika indarak eskeferantz edo eskubirantz abiada aundia artuko zutela. Au uste zutenak oker zeuden. Ez da orelakorik gertatu.

Txekotar emakumeak, autarki eskubidea beti izan ba'lu bezelaxe darabil gaur egunean, zarata gabe ta astrapalada gabe, eta ez dirudi lateri barungo politikan aldakuntza beririk emakumeak sortu dutenik.

Emakumien autarki eskubideak beste era batean izan du garantzia eta aunditasuna: Aberiaren pizkundean. Txekotar seme guztiak ikutu dituan berbizkundean gogotsu ta kementsu sartzen lagundu diclako.

Emakumeak autarkiagaz pizkunde ori eragin dioten aurekadan ikusi da onduen gauza ona izan dala eskubide ori emakumeai ezagutzea.

Ez litzake gañera ondo izango, benetako erkaltzale ta ezizale dan Aberi batean, emakumeai eskubide ori ukatzea.

Txekotaren aberia azkatu danetik, benetasun eta zintzotasun aundia politikara emakumeak eraman dute, geyegikeri eta ustelkeri guztien aurka lan izugaria dagite, eta len galarazo ezin ziran gauza batzuek galerazo dira, euretatik bat ingi zikin nazkagarien zabalkundea.

Txekotar emakumea oso etxekoandre ona da, diru gutxi gastatuta etxea ondo erabiltzen dakiana.

Eurak diote, gai oretan France'tar emakumea beste bai dirala. Ludi guztian France'tar emakumea etxekoandre ospetsua dalako esaten dute au noski.

Baña neure ustez euzkotar emakumeok ere France'tara añakoak bat gera. Bai orixe; Datozela bestela geure etxietara, diru gutxigaz nolako alatzak egiten ditugun ikustera.

Len ikusten ez zan gauza bat ikusten da gaur Echecoslovaquia'n. Emakume danak gizasemeak bezelaxe lana egitea.

Sendi aberatsetako alabak, txiroetakoak bezela berdin-berdin ikusten dira lanean. Txekotar emakumeak, bere lanean ipiñi du bere itxaropena eta gerorako ziurtasuna. Ezkontzak gutxitu egin bai dira an ere best, lekuetan bezela! Ezkontzak gutxitu eta bizialargunkeria geitu.

Emendik dator emakumeak bere burua berak jaso nai izatea lanaren bitartez.

Ikastola ta ikaskizun guztiak zabaldu zaizka, Theologie Catholique izan ezik. Augaitik karera danetako emakumeak dira gaur lateri oretan: inkenieru, arkiteto, lege gizon, osagile eta abar.

Ogibide edo opizioakin ere berdin gertatzen da. Emakume arotzak, zilargiñak, leyargiñak, arakiñak, erlojugiñak, ogigiñak eta abar ikusten dira.

Zer geyago? Prague'n bai dira emakume tximinigarbitzaleak, eta baserietan izkiludun baso zaitzaleak ere. Opizio abetxek biok, egia esan, ez zaizkit neuri atsegin egiten emakumientzat baña...

Etxe barruko neskame mofoitza osoa emakumeak arapatu dute. Tchecoslovaquie osoan mofoi bat ez dezute bilatuko gaur. Lantegi aundiak eta saleroseketa etxe nagusiak zuzentzera emakume gutxi sartu da orain arte beintzat.

Geyenak opiziña lanetan sartzen dira. Baña oregaitik ere gauza bat esan bear det. "Conseill central pour le choix d'une profesion" izena duan Bazkunean, emakume bat dala Lendakari ta buru.

ARITOKIETA.

Baserriko atadian

Zorigaitzal

Ilunaurea da. Etzinaldera doan eguzkiak bialtzen ditun izpietan bilduki, itzultzen dira nekazariak ilunabarean urundikó aloretik atxealdera. Biozpean poza ta alaitasuna dabilkianari, lelo gozoa dario olakoetan agotik. Zorigaitzak gainditu dauanari, ordea, laño baltzen antzera oldozkun ilunak bailkioz irudimenean itzulinguruka.

Larain-erdian goldea itxita doa Ande etxealdera, zaldia aurean eta burua lurera kakotuz. Aurpegiko tankeratik barunbea igartzen dakizuna al-zara, irakurle? Nekazari zintzoak laño dager bekokiondoa; ozpin-tantak xurgatuz dabilaren ibileran doa gizajoa etxeruntz. Aren agotik, oratio, ez dozu txintik aterako; ixilean naigabeak marraskatzen dakiana da, ba.

Sekulako iskanbila ta zarata ba-da une onetantxe atadiondoan. Saletxaldera daroan artaldeari deadarka ta oska diardu Bitel artzaiak eta aren otsai zakurak zaungaka bizian dagio erantzun; okuluko ate -ondoan ari dira, bariz, emakumeak erapetatik kaikuetara zarataka esnea biltzen. Etxeko zeregiñai loturik dabiltz danak. Auzo-etxietatik be egunoro garai onetan entzun oi doguzan otsak datorkuz belarietara. Gaurko beroa zerbaitan atseginduaiean, osiñean biloizik sartuta karasika dabiltz ume-taldeak igerian.

Ez uste, gero, Ande zintzoak be etxera orduko atsedenari ta egonari burua emon dautsonik, ez. Biarko lan-tresnak gertuta itxi gura ditu lenago. Biar goizaldean lanari lenbailen ekiteko tresneria inguratu ondoren, garatepean dagoan burdi zara be atera dau; baña aldarte gaiztoak eragiten daitso kolkoaren barenetik; gogaituta dabil arratsaldeaz gero. Zakurarengana bialdu eskuartean darabilazan zeregiñak eta saldiak eradaten ari dan Piter mofoiari oiu dagitso:

—Adi egik, Piter. Etotako zeratokira eroan bear dok biar goizean egura-ta, gertu egik gaur burdia.

Inpernuko deabruarenak ixuri ebazan moforiak aopetik marmarka nagusiaren agindua entzuki; etxakon, agian, gogoko lan axe.

—Ateftu darabilkan marmara ta bete egik arin agindutakoa. Il, bariz Anus, emon egiek jatekoa zaldiai eta doala Piter pagotxa biltzera. Abereak lan egin bear ba'dabe, jatekoa ugar bear yoak askaondotan.

Bien bitartean ara zelan uferatzen yakon Anka ernea Ande ilunari. Zergatik ete-ebilkian ilunaufe atan ainbesteko jarduna ta iskanbila ta asarea? Emakumea izan-eta, jakin miñak biziro zirikatzen eutson biozpea. Baña nork atera itzik olakoetan Ande ixilaren aotik? Itz legor batzuk, ari koskorak bai'lira, jaurti ondoren, atadian alderen alde, zakur lottuaren gisan, itzulbiraka ibili zan eta, azkenik, Matez adiskidearen etxera abiatu zan.

Lentxeago itzuli zan beretik Matez eta bere saletx-aurean esne otza katilutik zurutatzen ari zan. Negar-zotiña ta asperenka estua etoran une arean baratzaldetik.

—Nork dagi or elan negar?—itaundu eban nekazariak.

—Nastuse gaxoa da intxirika ari dana. Biozpean darabilan maitasunak zorarazi bear daula dirudi. Ezkon-deiak eginda dagoz eta datoren iganderako irari eben euren ezkontza-eguna; baña Dominike'k dei-zabaltzaleari adieraz dautso berari emon eutsoela ezkon-ondaretzat bizi dan basetxea ta Sime'ri ez dautsola txanpot bat bera be emongo. Areago oraindio, ezkontzen ba 'da, eztaula bere etxepean artuko. Bere itza bete egingo noski, dau ipurtere orek. Etxetik jaurti egingo dau semea zakur -eme amoratu orek.

—Eta zer diño Sime'k arlo onetzaz?

—Zer esango dau arek? Gaur goizean jesari da or baratza-baztarean eta an dago oraindio zugatz igartua bai'litz. Ez dautse jaramon aundirik egiten Nastuse 'ren zotinkai. Burutik eginda ete-dabilan be ba-deritxot.

—Sime!—deadar egin eban Mastes'ek baratzalderantz begira. Zatoz gugana. Ara emen Borina bioz-zabala ta, bear bada, arek erakutsi leikizu zure zorigaitzetik zelanbait urteteko bideren bat.

Aurki azaldu zan Sime erukaria. Begiak lurean josita, iñori agur be egin barik, aureneko aulkian jesari zan, zangoai klauxk eragiñaz, indargabeko aulduaren jasez. Izan be, a zan gizonaren itxura gaitza! Margul eta zurbil aurpegia, goseak matail azpietan zulatua egin ba'leutsoe, gorosti-makila zimeldua baño argalago. Betzuloctan, oratio, begiak dirdirka ebilkiozan; barruan ezkutatzen yakon suaren adierazle zeatz ziran begi dirdaitsu areik.

—Zer erabagi dozu?—itaundu eutson Mates'ek maiekiro.

—Emakume ori burua mozteko aizkora aftu bear dodala; orixe!

—Uuum...! Gorde egizuz beste nunbaiterako axeka orek.

—Zorakeriak? Jaungoikoa begira dagokigun legetxe diñotzut. Orelan jokatzen ba'da, ilko dodala. Zer egin neike, ba, besterik? Gure aitak utzitako ondarerik eztaust emon gura, bere etxetik jaurti nau; ez daust txanpon bat bera be emon nai... Zer dagiket zorogaitz onetan?—oiugin eban besagañaz begietatik eriozan malkoak iegortuz.

BARENSORO.

LAZKANO

NEURE TXABOLATIK.—Utero lez, juan dan larunbata eta igandean, gure eleiz nagusiko zaindari Mikel Deunaren omenez, karkatxoak eraldutako jayak, ondo igaro ditugu, Jaunari eskerak.

Eguraldi ederari eskerak, notintza aundia ibili da gure eri onetan, igandean batipat.

Eriko jai nagusietan aña ikuskai ez da egon, bañan alaz guztiz ere, alaitasuna nagusi egon du da.

Bi egunetan gaztedia arin dantzatu da, eriko txistulari, eta Tolosa'ko aspo-soñujole baten soñu otsean.

"Ankak ariñak eta
burua ariñago,
Dantzan obeto daki
arto jofan baño..."

Eleizkizun ederak ere ospatu dira, notintza aundia bertaratuaz. Bi gauetan, Bernioles jauzkalariak eta bere lagunak euren azkartasun arekin, ordu alai batzuek igaro erazi zizkiguten.

Igande eguerdian, pelota jokaldi bat jokatu zan. Jokalariak ziran, Garin'dar Mikel eta Estepan anayak, Iriarte'tar Sekunda eta Altolagirre'tar Joseba, lauek eritarak.

Jokaldi eder eta asarre baten ondoren, bi anayak irabazi zuten. aurkalariai bi tanton aldea kenduaz (30-28). Atsaldean ere, beste jokaldi bat jokatu zuten lau kanpotarek. Oyek nor diran jakiteko zorionik ez det izan, bañan barkatuko diaten itxaropena daukat.

Onelaxe bada, beste gabe igaro dira gure eriko jaitxoak. Zorionak, jai eraltzale pelotari eta gañerako guziai.

—"Andraituri-txiki" basetxekoak, seme eder bat izan dute. Zorionak.

—Mikel Deuna'ren egunean ezkondu ziran, Izagirre'tar Jone, "Enpaundi" basetxeko neskatxa edera, eta Otxoa'tar Peli, ordiziatar mutil gaste jatora. (Biyak abertzalea). ¡Zorionak, eta akaberarik gabeko eztizko-ilargi bat opa dizuet adiskidek!

—Aureko astean, Eleizaren azken laguntzak maiteki besarkatu ondoren, il zan bere bizitzako 84 urtekin, Zubia'tar Eraimunda'ren emaztea.

—Baita ere, eleizakoak artu ondoren, bere bizitzako 59 urtekin il da Sasiabarena'tar Gregori, Erauskin'dar Jagoba 'ren emaztea.

Oyek bik, biotz onekoak izanik, eri guziak maite zituan, eta beren eriotzarekin naigabeturik arkitzen da. Nere samin-agurra artu bezate, beren sendikoak, eta zuk irakurle otoitz egizu ildakoein alde ¡Jaunak eduki bitza, bere altzoan!

—Gure artean udara igaro ondoren Madrid'era juan da, gure eriko sendagile Joseba jaunaren osaba dan. Lasa'tar Joseba Mirena, kanonigo jaun agurgaria.

—Orobat, Saturaran eta Gazteiz'era juan dira, euren ikasketak egitera, Arinda'tar Anastasi, Ormazabal'dar Joseba, Estala 'tar Sabin, Larañaga'tar Eladi, Albizu'tar Anastasi, Arinda'tar Donata eta Garmendia'tar Jon Joseba, apaiz gai zintzoak.

¡Urengo urte arte, Jaungoikoak ala nai duela, agur!

—Aguntza doneko Amaren ila artu zaitu ondoren, Jauna'ren besuetan il zan igaro dan ostegunian, Zulaika'tar Joseba Mirena bizitzako 88'garen urtian. Agure urtetsu au, "Narzixo" basetxeko jauna izandu da (Goyan bego).

Bere sendiari izan duan atsekabe-aldian lagun gayakoz. Eta zuk irakurle, otoi Zulaika zanaren gogo-aldez.

EUZKEL-IZENA.—Gure adizkidea da Bibes'tar Joseba ta Zabaleta'tar Markel-ne'ri, euren len biziko maite-loratxutzat, Jaun-Goikua'k alabatxu polit bat eman diote.

Eta ugutzakeran, Jone Eskarne, euzkel -izen politak ezari diotez. Zorionak gurasoi zintzuoi.

KAIKU.

EREÑO

AZKATASUNAREN ALDEZ.—Ereño'ko abere-bazkun edo ermandadiak artu daun erabagija, azkatasunaren aldezkua ei -da. Eurok diñuenez, ba, ermandada ori, zozolistuen "Federaziñuan" sartutia ei-da, euren eskubidiak obeto aldeztuteko egiña.

Guk, "Sindikatokuak" be, geure batzarra egin gendun Eta batzar ori, gauza ori eitzaz erabagija artuteko ixan zan. Eta auxe eskatu gendun: ermandada ori, Bizkai'ko lugiñak Bilbao'n daukagun lugin -bazpatzan (Federaziñuan) sartutia. Baña "katoliku dobliok", gogor egin euskuben, ondiño aldi asko eztala zozolistuak gure tzako be onak ixan zirala-ta; zozolistuak eta Eskera katalana be bai. Olantxe esaten eban orein artian dabilan gixontxu dotoriak. Baña gixontxu dotore ofentzako be, abertzaliak iñoz onak ixango ziran batez be, Sota'tar Eraimun'i urutidazkije bidaldu eutsan aldijan. Aldi aretan, ba, abertzalioi atzia garbitzen ibilten zanian gu onak ixan gintzazan.

Ondiño be guk, orduko gauzak, aiztu barik daukaguz. Beste orei, baña, aiztu egin yakiezala dirudi.

Beñepein orain alkatetxu ixan gura leuken onek, batzara amaruteko be astirik emon barik, udaletxetik atara genduzan.

Bai, ba; emakumiei emon eutsen txokolatiaz, alkate egin eben. Eta orain, alkate imiñi ebenen alde egin biar.

Norberaren buru-jaube eztana, olantxe ibilten dabe. Kasikiek tabernerüak, eta belaiñonetz bat erijan egon, eta euren gurarija bete biar.

Olan iñok agindutekotan, agintza-makilarik biar be etzenduke, zeuri agintzen dautzubenai emon baño.

Alkate ixateko gauza eztanak, alkatetzarik eztau biar. Egi au iñok esan biarik eztago, norberaren zntzunak erakusten dun egija dalako.

Udalak ari-jasoterako imiñi dabezan erijakaz zer egin dozuben be, jakin gura geunke.

Eztau balijo au, ori ta bestia esaten ibiltzak. Esatiak axiak eruaten dauz. Egiñenak ostera, emen beian geratuten dira.

Zeure egiñenak zuzenak ba-dira, okerik une barik agertuko dira.

Okerak ba-dira, baña, naizta adabaziñakaz zuzenduten ibili, okerik agertuko dira.

MUTIL GASTE BAT.

Unamuno Txoriburua

Igazi dan irala'n, 29'gn., izan da Salamanca'n Unamuno'tar Mikel'en onena. Ofegaitik ba, artu dogu gaur idazkortza, euki daizen irakasle orek euzko-ikaslien omen bat.

Euzkerea maitatzen dogun guztiok daukogu, oraindiño, arantzak biotz barruan sartunda, ta beraz, gaitz izango yaku lenengotik aztutia Unamuno jaunak jaurti ebazan irañak (insultos) euzkereari.

Gizontxo onek ezin dabelez osatu daukon zorakeria, or ziar dabil, España laterian, ludi edo munduko erugabean (iñuzentean) erekora estalkitu gura. Alan da ze, ezkara ikaratu biar atzo esan badau jesuitak bialdu biar dirala ortik atziñe, ta gaur ostera, barriro ekarri biar dirala; atzo izan bada sozialisten adizkide aundia ta gaur areriora; atzo bakaldara, gaur erkaldara ta biar fascistia. Gil Robles'ek esan ezkero biar "Bakalderian Lendakaria" egingo dabela, ikusiko gendun zelan juango zan ariñeketan otoituten (eresetan) gurutz-pera jaungoikoa'k parkatu daizen "laicismo" aldian egin dabezan pekatuak.

¡Gixagaxua!

Euzkereagaz be onetara jokatu dabelez, emen beridatziko dot antxiña idatzi ebazan lerotxu batzuk. Lenengo, euzkerea maite eban (?) aldikoak. Idazki aren idazpuru edo ikurtza au izan zan, "Agur, Arbola bedeincatuba!".

"Euscaldunac euscaraz eztaquijenac icasi biar dabe, aren, biotz indartsuarentzaco bere errije maitauten dabena gauza erraza da; badaquijenac ez aztuteco, euscarie corapillube estuten dituzana illobac aitonai eta gurasoen jaquintasuneco ontzije dalaco".

¿Itz edefak onek, ezta ikasle?

Ba, zoritxarez, egun baten agertu (presentau) zan euzkerearen laguntza (concurso) batera, baña, beste batek irabazi ebalez, agur euzkereagaz euki eban maitasuna. Apurtu, birindu, triskilu ebazan beran Jantziak eta ordutik ona entzuten gagoz jaurtitze dabezan burduskadak eta agokadak.

Eta begitu andik aldi gitxira zertzuk asi zan esaten ganorabako ori. Ez ikaratu gero, jakin biar dozu txotxolotu zana-ta.

Ia, ba, jari nasai-nasai ta azkatu garikoa arnazia edefto baten artzeko ta imiñi mayan ur-ontzi bat.

Peru eta Maritxu

Unamuno'tar Mikel'arena.

Txikitan entzuniko ipuin bategaz,
Nago, gaur, gomutaten;
Zelan Peru ta Maritxu'k egin eben
Euren etxia gatzagaz.

Eurija ugari jausi zan zerutik
Ta, urtu zan ene etxia;
Gatz geyena itxasora biur zan, bestja
Lurian gelditurik.

Beti itxiten dabe txikitako ipuñak
Euren gatz eta onura;
Ta antzitasunetik,
Urte-urak eruaten gatu itxasura.

Baña gel da goguaren baren sakona,
Gel baserriko lurak;
Umetako urte igaropen gozuak
Ondo gatziu ebana.

Goguak umetako gatza galtzen ba'dau
Nork gatziuko ete dau?

Mundategi'tar Sabin.

"Oxin-Baltza"

Burgos mendira juaten ba-zara ta andik itxaso-ganerantz zuzenduzkero, ija Matxitxako-onduan idoroko dozun oxin bati, ingurubetako baserritarak "pozu-baltza" ereisten dautsoe.

Ikaragarizko oxiña da. Bein baserritar bat, egun osuan, mendi-mendijan iratan ixanda, etxerantz belutxu joyan bere burdikada iraz.

Iluntzija zan, len egondako eguzki edera eskutau ixan zan, eta gure gixonak, artega ta bizkor, idijai didar-egiten eutsen, len -bai-len etxera eltzeko.

Aftezago juan gurarik, mendi-ziar zuzendu ta igari-barik oxin onetara jausi zan, eta onek iruntzi ei-ebazan gustijak: gixona, burdija ta idijak.

Biiaramonian etzan etxian agiri-ta, Mañua'ko biztanliak oxin onen bilduta artu eben eta... ¡zelako bilduta!...

Bermeo'ko Mañua auzora iñoz juanezkero, ene irakurliok, sarritan entzungo dozube, len esan dautzubedana.

URDIOLA.

MENDARO

ZORIONAK, IDIAKEZ.—Gure abertzale Idiakez'tar Pantzeska'ren azkatasunak, benetan poztu gaitu Mendaro'ko abertzaliok.

Artu beza gure abertzale maitiak nere biotz-biotzeko zorionik sutsuena, besarkadarik maitekorena.

IZPAR BELTZA.—Azken-laguntza artu, eta urterolez, Eleiz nagusian goizeko seiretan, aguntza donea esango da, il guzian.

Il onetan eta betl,
zintzo-esan bear degu aguntza,
Goiko-ama maiteagandik
iritxi dezun, bere laguntza.

IKAMENDI.

Jesús Ostolaza
BERGARA
FABRICA DE INSIGNIAS
DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO
IKURRIÑEN OLEA

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

INGI BILDEGIA
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154 TOLOSA